

TOLOSAKO “ANDRE MARIA”
MUSIKA KAPERAREN AURKEZPENA

PRESENTACION DE LA CAPILLA DE MÚSICA
“SANTA MARIA” DE TOLOSA



TOLOSAKO "ANDRE MARIA" MUSIKA KAPERA
CAPILLA DE MÚSICA "SANTA MARIA" DE TOLOSA
Musika Zuzendaria: Ander Letamendia Loinaz - Adiskide Numerarioa



Luis Elicege Mendizabal - Adiskide Numerarioa
EAren Presidentea Gipuzkoan
Juan Bautista Mendizabal Juaristi - Bascongadako Zuzendaria
Arantza Aramendi
Tolosako "Andre Maria" Musika Kaperaren Presidentea
Ander Letamendia - EAren Adiskide Numerarioa



Luis Elicege Mendizabal - Adiskide Numerarioa
EA Eren Presidentea Gipuzkoan
Arantza Aramendi - Tolosako "Andre Maria" Musika Kaperaren
Presidentea
Ander Letamendia - EA Eren Adiskide Numerarioa





**TOLOSAKO “ANDRE MARIA”
MUSIKA KAPERAREN AURKEZPENA**

**PRESENTACION DE LA CAPILLA DE
MÚSICA “SANTA MARIA” DE TOLOSA
ADISKIDE KOLEKTIBOA
AMIGA COLECTIVA**

ANDER LETAMENDIA LOINAZ
EAEko Adiskide Numerarioa
eta Gipuzkoako Saileko Batzordekidea

TOPIC ANTZOKIA - TOLOSA
TEATRO TOPIC - TOLOSA

2019-05-04

Luis Elicegui, Baskongadako presidentea Gipuzkoan eta ekitaldi honen mahaiburu, Juan Bautista Mendizabal, Baskongadako zuzendaria, Juan Luis Arsuaga, Baskongadako ohorezko kide izendatu berria, Pako Etxeberría aspaldiko lagun eta medikuntzan kidea, Arantxa Aramendi, Santamaria kaperako presidentea anderea, kaperakideok, Baskongadako partaideok, lagunok, adiskideok, eguerdi on guztiori eta ongi etorriak Tolosako TOPIKen areto nagusira.

Aste Santuaren egun batzuk aurretik, Harbilengandik ekitaldi honetan parte hartzeko gonbitea jaso nuenean, berehala erantzun nion, arlo honetarako ba zeudela ni baino buru eta irudimen argi eta aberatsagoak. Nik, egia esan, ez dut ez bat eta ez bestea baina, oraindik ahaztezina dut, apenas hirurogei urte igaro eta gero, galtza motzetan zebilen hamalau urteko kakaume bat besterik ez nintzenean, nola on Juan Arsuaga, nere biolin maisuak, ezustean, belarri iskinara ziplo bota zidan:

–Eguberri egunean Santa Mariako korua igo behar dek, azken hiru hilabeteetan ikasitako meza nagusia orkestrarekin jotzera.

Harrituta geratu nintzen, eskaintza handi xamarra baizen niretzat, eta beharbada, iheska ere hasi nintzen aurreneko momentu hartan, arrapaladan etorri zitzaizkidan hainbat aitzaki aipatuz; hala nola, oporraldiak eta aste buruak nire gurasoekin Ormaiztegin pasatzen nituen, denbora falta, eta, batik bat, nire lotsa eta ikara ziren egi berdaderoak.

Lotsa etzen tamalez aitzakia, errealitate kezkaigarria baizik. Baina argi dagoena zera da: aitzakiek ez zutela balio izan. On

Juanen izaerak, gozo eta jatorraz gain, bazuen magikoa den baliabidea: Konbenzitzeko gaitasun aparta eta, leialtasun sentimendu bat nahikoa izan zen, berez, Tolosako Kaperan sartzeko proposamenari baietza emateko.

Hantzeko zerbait gertatu zait mahai honetarako idatzi hau prestatzen aritu naizenean. Bat-batean, ehundaka aspaldiko oroitzapen atsegin bururatu zaizkit: Kaperarekin biolina jotzeko aukera eta ohorea, garai hartan koruan sumatzen zen giro ziñezko eta serioa, erabiltzen genituen partitura zaharrak eta atril edo liburu-zaldi beltz eta zabalak, gaur errespetatze ez den ixiltasuna, pulpitotik botatako sermoi garaian, kanpandorreko eskaileretan erretzen genituen zigarrotxoak, eta bereziki, aspaldi gure artetik joan ziren pertsona edadetsu eta ohoragarriak: Artsuaga'tar anaiak Juan, Simón eta Jesús, Severiano De Juan, Antoñito Labayen, Txortxi txeloarekin, Azkue, ezizenez "pattatta", Kerejeta kontrabaxua joaz, Inazio Mokoroa organojole bezala eta zuzendari lanetan, Xalus Baltza; eta kantoreen artean, bestalde, Laxaro Pildain, Migel Martínez de Lezea, Joxemari Tellería, Félix Galizia, Benjaminen aita, Larraxa, Ramón Moraiz, Estévez, eta abar eta abar. Egi berdaderoa da, beraien jokaera agurgarri eta serioari esker, beraiekin biolina jotzen hasi bezain pronto, gure kaperari maitatzen asko irakatsi zidatela, baita taldea bihotzean eramaten ere.

Eta nola ahaztu Gorputz eguneko eta maiatzaren lehen igandeko eskolapiotako prozesioak, primerisimako hiletak, Sortzez Garbiaren bederatziurrena, Salbea eta meza, nire bihotzean bertirako sustraituak geratu diren hainbat partitura, Zeru Handin urtero egiten genuen bazkari ederra, eta abar eta abar. Ikusiaz gertaera minberak ahaztu eta atsegingarriak nola handitu ditudan, oso ondo nabaritzen da nire taldearekiko mira.

Queridos amigos: Con pocas palabras diré con el clásico que lo breve, si dura poco, es dos veces breve, y creo que ahora tengo, tenéis, tenemos todos... toda la prisa imaginable para, en lugar

de atender mis titubeos, ver y escuchar a la capilla el villancico que escribió Felipe Gorriti para la festividad de Año Nuevo y el himno a la Virgen de Izaskun del tolosarra D. Eduardo Mokoroa, hijo predilecto de la Villa a quien se le concedió la cruz de Alfonso X el Sabio y de quien acabamos de celebrar los 150 años de su nacimiento. Una vez más ¡y ya me encargaré yo de que no sea ni siquiera la penúltima, estamos en liturgia de amigos, atendiendo a la cordial invitación de Harbil Etxaniz que, por supuesto me honra mogollón trayéndome aquí y dejándome abrir la boca, cosa nada difícil... ¡lo difícil es cerrármela porque yo no cobro..., sino que pago por hablar!

La humana costumbre de organizar el tiempo en torno a acontecimientos relevantes me lleva a distinguir algunos por su especial significado. En tal sentido, la entrega de la medalla de AMIGO DE HONOR de la Bascongada al profesor Arsuaga no podía pasar inadvertida para quienes, desde más lejos (yo desde 1961, hace cerca de 60 años), he compartido tareas musicales con su abuelo, D. Juan Arsuaga. Y es así como surge el proyecto de combinar en un mismo acto la imposición de ambas medallas: la de Amigo de Honor del profesor Arsuaga y la de Amigo Colectivo de la Capilla Santamaría de Tolosa, de la que su abuelo Juan fue profesor de violín y violín concertino. A lo largo de unas cuantas décadas, muchos tuvimos la ocasión de apreciar su bonhomía, sus profundos conocimientos musicales y su brillantez expositiva. De ahí mana mi interés en que este acto se realizara en este salón, coincidiendo la entrega de ambas medallas.

Cuando de violinista pasé a director, me empeñé en reflotar la entidad y en darla a conocer fuera del ámbito local, proyecto ambicioso, asaz creativo, aunque angosto y enrevesado. Cuando vuelvo la vista atrás casi ni me reconozco solemnizando misas mayores y ofreciendo conciertos y actuaciones en San Juan de Luz, Getaria, Zarautz, Azkoitia, Bergara, Tafalla, Gabiria, Burgos o Madrid y, como remate final y gracias a la colaboración del

maestro Colino, en la basílica de San Pedro de Roma, de tan grato recuerdo para todos.

Pecaría de modesto si no manifestara que el desempeño del cargo a lo largo de más de diez años fue, además de un alto honor, una escuela permanente de aprendizaje y de enriquecimiento personal y musical. Tengo la satisfactoria sensación de que, entre todos, trabajando con seriedad, disciplina y constancia (no conozco otro método mejor para aprender), hemos llevado a buen puerto a la Capilla Santa María.

Actualmente, jubilado, pero no quieto, presido “Arakil Fundazioa”, entidad creada para aguijonear y promocionar la capilla, además de catalogar, transcribir y actualizar poco a poco, la colección de manuscritos de su exquisito archivo musical.

Mi precaria preparación musical fue bien solapada con la inestimable colaboración del gabiritarra José Antonio Arzelus, a quien le ofrecí la organistía de Santa María para tres meses, cargo que ocupó 28 años. Hoy, a pesar de llamarle por teléfono, no está entre nosotros porque ayer recibió una nueva dosis de quimioterapia en el Onkologikoa, situación que, como muy bien sabéis, conozco personalmente.

Con la organización de este acto, la Baskongada quiere recompensar a la capilla Santamaría de Tolosa por su larga y brillante andadura musical durante casi medio milenio. Y al lado de la celebración por lo vivido, queremos expresar nuestra confianza en que su presencia continúe alegrándonos por muchos años.

Como se refleja en la historia de la Capilla, escrita con mimo y cariño por mi compañero de cuerda y colega Enrique Bello Larrarte, hay noticias de su existencia con Juan Luzuriaga como organista titular desde el año 1540, y desde 1618 (hace más de 400 años) se conoce la existencia de la orquesta para acompañar las misas mayores.

Pablo Gorosabel, alcalde de Tolosa, en “Bosquejo de las anti-güedades, gobierno, administración y otras cosas memorables de Tolosa”, relató que, con ocasión de la canonización de San Ignacio de Loyola (bula del 12 de marzo de 1622), se sacaron a concurso las plazas de maestro de capilla y organista.

En 1775 (un año antes de publicar su primera fábula) Félix María de Samaniego, también alcalde de Tolosa que residió en el Palacio de Idiakez, fue un miembro de la Baskongada que honró como pocos a su lema “IRURAK BAT” ya que, siendo alavés de nacimiento (era de Laguardia) e hijo de una gipuzkoana, se casó con una bizkaina.

También recuerdo el cartel que estaba, hasta hace poco, sobre la puerta de la sacristía, donde se podía leer:

“La noble y leal villa de Tolosa es patrona merélega de la iglesia parroquial”.

Merélega significa que el ayuntamiento, con el dinero recogido en la bandeja y los cepillos, los derechos de entierro y el alquiler diario de las sillas, pagaba la mensualidad a los curas, costeaba los ornamentos y vasos sagrados, campanas, órgano, libros y misales de canto, y tenía la facultad de nombrar organista, sochantre (el director del coro para los oficios divinos), cantores, tiples, monaguillos y seroras, sororas o beatas, especie de diaconisas también conocidas como benitas.

En 1859 ya se encargó el ayuntamiento de que el responsable de la Capilla de Música, con todo lo que costaba, lo fuera también de la Orquesta, de la Banda de Música y de la recién creada Academia.

Eta ez nuke hitzaldi hau amaitu nahi, Arsuaga zenaren ikasgaia zintzo ikasi eta lan horretan saiatu zeratenei bi hitz eskaini gabe. Gogoan ditugu gure kapera maitean zintzo lanean ari diren kantore, soinu-jotzaileak eta zuzendaria; eta gogoan ditut, azken batean, konpromisoaren lehen lerroan, alaitasun eta gogo onez,

herrigintzan ari diren herritar guztiak.Tolosako herriak ez du inoiz neurri betez eskertuko gizonemakume horiek beren jo-kaeraz kulturari eskaini dioten laguntza.

Santamaria kaperako partaide guztieri besarkada bat eta nire zorionik beroena, urte luzeetako eta ixileko lana burutzeaz gain, gaur denon artean jasoko duzuen ondo merezitako domi-nagatik.

Zuberoan dioten antzera, BIBA ZÜEK!

Eta besterik ez. Hemen amaitzen dut, oraingoz, nire beharra. Ateak zabalik geratzen dira ikerketetan jarraitzeko. Eta jarraituko dugulakoan nago

Kaperaren entzunketa atsegina eta probetxu onez betea oparituz, Eskerrik asko.